


Eurasiako sapiens zaharrena identifikatu dute

Apidima 1 garezur-zatia (eskuinean) eta fosilaren berreraiketa aurretik (erdian) eta albotik (ezkerrean) begiratuta.

ARG.: Katerina Harvati, Eberhard Karls University of Tübingen.



Grezian leku berean aurkitutako bi garezur aztertuta, bata duela 210.000 urteko sapiensa, eta bestea 170.000 urteko neandertala direla ondorioztatu dute, [Nature aldizkarian argitaratu duten lan batean](#). Lehen, Eurasian aurkitu den sapiensik zaharrena litzateke, eta, horrek esan nahiko luke, gizaki modernoak uste baino askoz lehenago ateratzen zela Afrikatik. Dena den, ikerketak zalantza handiak piztu ditu adituen artean.

1970eko hamarkadaren bukaeran aurkitu zituzten bi garezur horiek, Apidima haitzuloan. Apidima 1 eta Apidima 2 izena eman zitzaizkien. Apidima 2 dagoeneko neandertal gisa zegoen identifikatuta; Apidimia 1, berriz, identifikatu gabe zegoen. Orain, ikertzaileek bi garezurrik birtualki berreraiki eta aztertu dituzte, eta Apidima 2 fosilak neandertalen ezauzgarriak dituela baieztatzeaz gain, Apidima 1 sapiensa dela ondorioztatu dute, garezuraren atzealdea sapiensek bezala borobildua duelako.

Bestalde, uranio-bidezko datazio-teknika bat erabilita, ikusi dute, fosilak oso gertu aurkitu zirela arren, oso data desberdinekoa direla. Apidima 2 fosilak 170.000 urte dituela kalkulatu dute, eta Apidima 1ek 210.000, Europan identifikatu den

sapiens zaharrenak baino 160.000 urte gehiago. Hala, emaitza hauek iradokitzen dute gizaki modernoak uste baino askoz lehenago ateratzen zela Afrikatik, eta ikertzaileen ustez, dispersio anitzaren hipotesia indartzen du.

Alabaina, adituen artean zalantzak eragin dituzten ikerlan honek. "Oso arraroa da hain gertu dauden bi kaskezurrek hain kronologia ezberdina edukitzea", dio Joseba Rios Garaizar CENIEH Giza Eboluzioari buruzko Ikerketa Zentroko ikertzaileak. "Dena ondo balego, ondorioak sekulakoak liriateke. Gizaki modernoak hain goiz Europan, Neandertalekin batera...."

Ez du argi ikusten Asier Gomez Olivenciak ere: "Giza fosil bat topatzea oso zaila da; eta bi garezur aurkitzea, bata bestearen alboan, eta biak kronologia desberdinekoak izatea, eta, gainera, bi espezie desberdinetakoak izatea, ez da batere normala", dio EHUko paleoantropologoak. "Atapuercan, Sima de los Huesos-en, 10. garezurra patologikoa da (kraniosinostosi bat dauka), eta, hori dela eta, frontala bertikalagoa dauka, hazkuntza konpentsazaila bat dela medio. Frontal hori bakarrik ikusita oso sapiens itxura izango luke, baina jakin badakigu ez dela espezie horrena". ●